



DANI BLANCO

## Mikel Zurbano



EHUKO  
IRAKASLEA,  
EKONOMIALARIA

# Desberdintasunen aroa

AZKENALDIAN ASKO zabaldu da desberdintasun ekonomikoaren gaineko kezka. Ekonomialari ezagun ugari —Thomas Piketty delarik horien arteko ikur mediatico gorena— beren azterketen ildo nagusia arlo horretara bideratu du. Gaur egun, errentaren eta aberastasunaren desberdintasunak duten goranzko joera nabarmena eztabaida ekonomiko eta politikoaren erdigunean dago.

Desberdintasunen igoera aparta ematen ari da Europar Batasuneko hegoaldean, batik bat 2008an krisi ekonomikoa lehertu eta bertan errezeta ekonomiko ortodoxoak indarrean ipintzen hasi zirenetik. Erreskateen ordainetan ezarritako austeritate politiken ondorioz herrialdeok aspaldian ezagutu gabeko zentzugabeeria sozialak ezagutzen dituzte egun. Espainiako Estatuaren kasua da aipagarrienetarikoa, izan ere, bertan eman da EBko

ondare ekonomikoa oinarri duen neurria, zeina egokiagoa dena herrialde bateko desberdintasunen argazkia egiteko Pikettyren esanetan. *Global Wealth Report 2014* txostenak hauxe dio: Estatuko %1 aberatsena estatuko ondarearen %27aren jabe da, eta %10 aberatsenak ondare guztiaren %55,6 eskuratzen du. Beste muturrean %30 txiroenak aberastasunaren %2,3 soila baino ez dauka.

Interesgarria da Espainiako Estatuko klase ertainaren uzurtzea bistaratzen duen datua: errenta maila ertaina duen biztanleriaren %40 aberastasunaren %20 eskasaren jabe da.

Errenta desberdintasunek, Estatukoak baino lausoagoak diren arren, Hego Euskal Herrian ere handitzeko joera hartu dute krisi garaian. EAerako Jaurlaritzak egindako 2014ko Gizarte Beharren Inkestak 2008 eta 2014 aldian bertako %10 aberatsenen batez besteko sarrerak %1,1 igo ziren eta, aldiz, errenta apaleneko biztanleriaren %30aren ekonomia sarrerak %4 jaitsi ziren. Beraz, hegoaldeko hiru lurraldeotan biztanleriaren zati esanguratsu bat beheranzko higidura nozitzen ari da krisiarekin. Gini indizeak ere joera aldaketa erakusten du EAEn, izan ere, 2012 urtean beheko marka izan ondoren (0,253), artean beheranzko joera izan arren, ondoren igotzen hasten da 2014ko 0,271raino. Espainiako Estatuko zenbaktik oso atzean egon arren, arduratzekoa da aspaldiko partez joera aldaketa egotea.

Laburbilduz, austeritate politikek ekonomi desberdintasunak indartu egin ditu Europako hegoaldean, modu berezian Espainiako Estatuan eta, leunago bada ere, baita euskal lurraldean ere lehen aldiz. ELGak (OECDk) onartzen du errenten desberdintasunaren igoerak Europan zeri-kusi zuzena duela “barne devaluazioaren” prozesuarekin, soldaten banaketa are desberdina ekarri baitu horrek. Gainera Estatuaren birbanaketa gero eta atzerakorra bihurtzen ari da murrizketa gogorrek direla tarteko. Azken buruan, austeritate politikak kohesio sozialean pitzadura sortzen ari dira europar “eredu soziala” koloka ipintzeraino. ■

*Global Wealth Report 2014 txostenak hauxe dio: Espainiako Estatuko %1 aberatsena Estatuko ondarearen %27aren jabe da, eta %10 aberatsenak ondare guztiaren %55,6 eskuratzen du. Beste muturrean %30 txiroenak aberastasunaren %2,3 soila baino ez dauka*

desberdintasunaren igoerarik handiena krisiaren testuinguruan, eta gaur egun 28 estatuen artean bigarrena da errenta desberdintasunaren tarteari dagokionean, Letoniaren atzean eta Grezia, Portugal eta Irlandaren aurretik. Desberdintasunak neurtzeko erabiltzen den Gini koefizientea igo da Estatuan 2006ko 0,313 izatetik 2013ko 0,350era, eta garai horretan bertako biztanleriaren %20 aberatsena eta %20 txiroenaren arteko errentaren tartea 6,3 bider handiagoa izateraino heldu da, horretan ere Espainiako Estatuak “txapel-duna” da EBko herrialdeetan, Eurostaten arabera.

Espainiako Estatuko desberdintasunaren irudi kaskarra areagotu egiten da aberastasunaren banaketa aintzat hartuta, alegia